

## GURE ARMAIRUA AZTERTZEN



Kontuan izanda aurten jorratu behar dugun gaia Ekoizpen eta Kontsumo jasangarria dela, Batxilerreko ikasleak norberaren arroparen kontsumoan zentratuko zarete. Horretarako, alde batetik, erosketa ohiturak eta irizpideak, eta bestetik, erabiltzen ez dugun arroparen kudeaketarako herrian bertan zein herritik kanpo dauden aukerak aztertuko dituzue. Proposatutako materiala talde txikietan landuko da, emaitzak gelan partekatuz.

Jarraian, azken bi urteetan Eskolako Agenda 21 programaren barruan hartutako konpromisuak azaltzen dira. Betetzen al dituzue?

KONPROMISOAK	BAI	EZ
Etxeko argiak eta eskolakoak behar ez ditugunean itzali egingo ditugu eta argi naturala gehiago erabiliko dugu.		
Berogailua eta aire girotua behar direnean bakarrik piztuko ditugu (gradu batek kontsumoaren %7a suposatzen baitu) eta hauek piztuta daudenean atea eta leihoak itxita edukiko ditugu.		
Ikastetxeko argi eta ur kontsumoa murrizten saiatuko gara neurri ezberdinak hartuz (kontsumo gutxiko edo LED bonbillak erabili, kanpainak egin, pegatinekin gogorarazi), eta iturrien erabilera egokia bultzatuko dugu.		
Bide motzak egiteko kotxerik ez dugu hartuko eta ikastetxetik gertu bizi garenok oinez edo bizikletan etorriko gara.		
Garraio publikoa erabiliko dugu bide luzeetan eta inguruko herrietara joateko, eta kotxea hartu beharra dugunean partekatzen ahaleginduko gara.		
Erosketa gehienak herri barneko dendetan egiten saiatuko gara.		

KONPROMISOAK	BAI	EZ
Poltsa edo tupper banaketak egiten direnean erabili behar ditugunak bakarrik eskatuko ditugu eta ez ditugunak erabiltzen itzuli.		
Eskolan fitxak inprimatu eta hainbeste orri gastatu beharrean ariketak ordenagailuan egiten saiatuko gara.		
Hondakinak ondo bereizten eta konposta egiten jarraituko dugu.		
Material ekologikoa gehiago erabiliko dugu.		
Ikastetxeko nahiz kanpoko berdeguneak eta landaretza zaindu eta errespetatuko ditugu.		
Balio ez duten boligrafo, errotuladore, mugikor, pila, CD ... bilketarako dauden ontziak erabiliko ditugu eta paper gutxiago gastatuko dugu ondo erabiliz.		
Udaletxean antolatzen diren garbiketa eta landaketetan parte hartuko dugu.		
Lorategiak eta belardiak errespetatuko ditugu bertara zaborrik ez botaz, landareak ez puskatuz, zuhaitzak bakean utziz, zakur kakak jasoz, bizikletan derrapeak egiten ez ibiliz...		
Gure etxean dauden landareak ere hobeto zainduko ditugu.		
Jatekoa eramateko (ikastetxera, mendira...) ontzi berrerabilgarriak erabiliko ditugu.		
Oporretara joan behar dugunean, gurasoei urrutira ez joateko eskatuko diegu. Bertan badaude oporrak igarotzeko toki onak.		

Ondorengo koadroan lanerako lagungarriak izan daitezkeen erreferentziak azaltzen dira:

- Google: "Etiquetas de productos textiles sostenibles"
- "Guía de moda sostenible": marcas y tiendas.
- [www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

Lortutako diagnostikoan oinarrituta, Azpeitiko Udalari hobekuntza proposamenak luzatuko dizkiogu eta gure esku dagoena ere bultzatuko dugu.

## ◆ ARMAIRUAREN INBENTARIOA

(Ondorengo plantilla erabiliaz marka ezazu bakoitzetik zenbat daukazun)

### 1.- Neure arropa:

- |                                   |  |   |
|-----------------------------------|--|---|
| <input type="checkbox"/> Galtzak  | <input type="checkbox"/> Zapatak                   | <input type="checkbox"/> Alkandorak       |
| <input type="checkbox"/> Jertseak | <input type="checkbox"/> Sandaliak                 | <input type="checkbox"/> Soinekoak        |
| <input type="checkbox"/> Poloak   | <input type="checkbox"/> Txankletak                | <input type="checkbox"/> Txamarrak        |
| <input type="checkbox"/> Gonak    | <input type="checkbox"/> Zapatillak eta deportibak | <input type="checkbox"/> Txandalak        |
| <input type="checkbox"/> Botak    | <input type="checkbox"/> Nikiak                    | <input type="checkbox"/> Kiroleko arropak |

2.- Zer iruditzen zaizu, arropa gutxi/nahiko/gehiegi daukazula? Daukazun arropa guztia erabiltzen al duzu?

.....

.....

## ◆ ETIKETEN AZTERKETA

Arropetan 2 motatako etiketak aurki ditzakegu:

a.- Arropen jatorria (non eginda dauden) adierazten duena.

b.- Arropa eta oinetakoen ziurtagiri ekologikoa. XXI. mendean, moda etikoa edota jasangarria egitea posible da. Kasu hauetan, badakigu, produktu horiek ingurumena errespetatuz eta lan baldintza duinetan ekoiztu direla. Horien artean, Espainia mailan, besteak beste, ondorengoak aipatu ditzakegu: GENUINS, IRENE PEUKES, SUR/SAC, URBAN FAWN, ECOALF, EFIMERO. Euskal Herrian ere badira modu ekologikoan ekoizten duten firmak. Adibidez, SKUNFUNK, NABARI, AMARENK, XIROECO, ANTZIA, ÄTTAKONTU, COMME DES MACHINES, IFEELNUT eta MANDERLAY.



### ◆ ARROPEN JATORRIA

3.- Bertan eginda? Kanpoan eginda? Adieraz ezazu zein herrialdetan eginda dauden zure arropak.

.....

.....

4.- Bila itzazu Euskal Herrian ekoizten diren beste marka ekologikoak zeintzuk diren eta marka ekologikoko arroparik baduzun eta zein markatakoa den adierazi.

.....

.....

5.- Arropa berria erosi aurretik beste aukeraren batzuk aztertzen al dituzu? Zeintzuk?

.....

.....

6.- Arropa berria erosteko irizpideak:

- Urtero gauza berriak       Beharren arabera       Besteak (Aurrekontu fijoak / ez fijoak)

### ◆ NON EROSITA

7.- Marka ezazu non erosten dituzun

- denda txikia  
 on line  
 azoka  
 besteak  
 zentru komertziala

8.- Herrian arroparik erosten al duzu?

- Bai       Ez



BAIEZKOAREN KASUAN:

Zergatik?

.....

Zer abantaila ditu herrian erosteak?

.....

Bigarren eskuko dendarik ba al dago?

.....

Bertako arropak saltzen dituen dendarik ba al dago?

.....

Modu ekologikoan fabrikatutako arropak saltzen dituen dendarik ba al dago?

.....

EZEZKOAREN KASUAN:

Zergatik erosten duzu kanpoko dendetan? Aukera gehiago/Prezioa/erosotasuna...

.....

.....

Zer botatzen duzu faltan Azpeitiko dendetan?

.....

◆ ONDORIOAK

9.- Zer ondorio dituzte zure erosketa ohiturek herriko dendetan?

.....

10.- ETA INGURUMENEAN? Zein arazo sortzen ala saihesten dituzu? Gazteentzako (Zara, Berska, Stradivarius,...) dendetan erositako arropak benetan merkeagoak al dira?

.....

.....

11.- Kalkula ezazu Donostian erositako praka batzuen prezioa kontuan izanda produktuari berari gehitu behar dizkiozun beste gastuak: (Donostirako joan-etorrian erabilitako-garraioa, erregaia, sortutako beroketa efektuko gasak).

.....

.....

### ◆ ERABILTZEN EZ DUZUN ARROPAREN KUDEAKETA

12.- Zer egiten duzu erabiltzen ez duzun arroparekin?

Gorde                       Oparitu                       Beste irtenbideren bat aurkitu

13.- Ezagutzen al duzu **Renueva tu armario** deituriko aukera?: zeure arropa etxean bertan doan jasoko dizuete.

.....

.....


14.- Zer irtenbide daukazu herrian erabiltzen ez duzun arroparentzat? Ondorengo aukerarik ba al dago? trukatu / saldu /erropen edukiontzira bota / elkargunera eraman (2 aukera: oparitu ala saltzen jarri, 6 hilabeteko epea. horren ondoren, bertan utzi edo bertatik hartu) / besteak (zehaztu)

.....

.....



## GURE ARMAIRUA AZTERTZEN



Zer egin dezake Azpeitiko Udalak gazteen artean beraien arropen kontsumo eta erabilpen jasangarria sustatzeko?

---

---

---

---

Eta zuek ere zerbait egin al dezakezue jantzien kontsumo eta erabilpen jasangarria sustatzeko?

---

---

---

---